

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak tokiko mapa berria planteatzen du mankomunitateak % 91n murrizten duena eta kontu-hartzaitzako nahiz idazkaritzako zerbitzuak 103 unitatetan zentralizatzen adituena

Gobernuak landu duen Foru Legearen aurreproiektuak udalerrri eta kontzejuei eusten die, baina haien egiturak arrazionalizatzen ditu

Miércoles, 03 de octubre de 2012

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran ezagutu du Nafarroako Tokiko Administrazioaren berrantolatetako Foru Legearen aurreproiektua. Aurreproiektu horrek jasotzen du, alde batetik, ur, zabor eta abarren zerbitzua eskaintzen dituzten mankomunitateak eta elkarte tradizionalak murriztea, egun dauden 67 horietatik 6ra pasatuz (-% 91), eta bestetik, udalerrietako idazkaritza eta kontu-hartzaitzako funtzioak zentralizatzea; hala, egun dauden kudeaketako 166 unitatetatik 103 pasako dira fase ertain batean (-% 38) 40 an geratu arte (-% 75,9) fase aurreratuago batean.

Aurreproiektuak tokiko mapa berrantolatu nahi du udalerriek eta kontzejuek pairatzen dituzten kudeaketa-egiturak murriztuz, kostuen aurreztea sustatzeko xedearekin.

Nafarroako udalerrri eta kontzejuen kopuruak kasik egun dagoen bezala jarraituko du (272 udalerrri eta 348 kontzeju gaur egun), nahiz eta berrantolatzeko proposamenak mekanismoak ezartzen dituen haien murrizketan aurrera egiteko. Besteak beste, udalerrriak eta kontzejuak desagertzea planteatzen da hauteskundeetarako hautagaiak aurkezten ez badira; kontzeju berriak ezin sortu ahal izatea eta erakunde horien eskumenak murriztea; edo udalerrrien borondatezko bat-egitea sustatzea. Tokiko mapa berri horren barnean egungo finantzaketa-eredua

DISTRIBUCION MANCOMUNIDADES



Nafarroako Gobernuak proposatutako Interes Orokorreko sei Mankomunitateen lurralde-eremua.

berraztertzea sartzen da, era horretan proposatutako arrazionalizazio-eredua sendotzeko.

Gaur goizeko bilkuran Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioaren kontseilari José Javier Esparzak azaldu duenez, arau berriaren nahia hiru helburu lortzea da: kudeaketa ekonomikoaren arrazionalizazioa eta hobekuntza eta Foru Komunitateko toki-erakundeek zerbitzuak eskaintzea; ahalik eta berdintasun handiena lortzea Nafarroa guztiko herritarrek zerbitzuak jasotzeko orduan, beraien kokapena kontuan hartu gabe; eta Nafarroako Toki Administrazioaren mapa administratiboa eta funtzionala lurralde-mailan antolatzea. Aurreproiektu hori egiteko, 2011ko parlamentuaren txostena eta [Nafarroako Lurralde Estrategia](#) aintzat hartu dira.

Administrazio-zerbitzuak elkartzeko aldera, bi fasetan

Nafarroako Toki Administrazioa berrantolatzeko Foru Legearen aurreproiektuak jarduerak jasotzen ditu, toki-erakundeetan aurreratzeko aukera handiena dagoen gaineko bi gastu-eremutan: zerbitzuak ematen eta administrazioaren kudeaketan.

Administrazio-kudeaketan, gaur egun idazkaritza edota kontu-hartzaitzako funtzioak ematen dituzten 166 kudeaketa-unitate daude: 105ek zerbitzua banaka ematen die beste hainbeste Udalarari, 50 idazkaritzako taldeak dira eta 11, administrazio-zerbitzuetako taldeak. Azken irudi horren pean (administrazio-zerbitzuen taldeak) berrantolatu nahi dira hemendik aurrera toki-erakunde guztietan ematen diren idazkaritza eta kontu-hartzaitzako funtzioen egikaritzetik sortutako administrazio-zerbitzuak

Proposatzen den berrantolaketaren azken xedea da, Nafarroa guztian toki-erakunde guztientzat administrazio-zerbitzuetako 40 talde egon daitezen, Nafarroako Lurralde Estrategiaren azpi-eremua bakoitzeko bat. Azken egoera hori lortuko da idazkari eta kontu-hartzaileen egungo lanpostuak amortizatzen doazen heinean; hala, azpi-eremu bakoitzean talde bakarra izango da.

Ordura arte, eta fase ertain gisa, Nafarroako Toki Administrazioa berrantolatzeko Foru Legea indarrean sartzen denetik urtebeteko epean, administrazio-kudeaketako unitate-kopurua 103ra mugatuko da: 59k zerbitzua banaka emango die 2.000 biztanletik gorako toki-erakundeei eta 44k administrazio-funtzio horiek taldeka eskainiko dituzte 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan. Era horretan, administrazio-kudeaketa-unitateak % 38an murriztuko dira fase ertainean eta % 75,9an prozesu guztia amaitzen denean.

67 mankomunitatetik 6ra

Eremu funtzionalaren edo zerbitzuak ematearen gainean jarduteko, egungo Mankomunitateen kopurua murriztu egingo da. Gaur egun Nafarroan guztira zerbitzu finalisten 67 Mankomunitatek dihardute lanean (7 funtzio askotarikoak, 8 hondakinenak, 5 urenak, 2 elektrikoak, 36 oinarrizko gizarte-zerbitzuetakoak, 7 kiroltakoak eta 2 euskararenak). Gobernuaren helburua da, urtebeteko epean, haiek guztiak sortuko diren Interes Orokorreko 6 Mankomunitatetan bil daitezen. Horrekin, % 91 murrizten da Nafarroa guztiko mankomunitate-kopurua.

Udalerriek erabaki beharko dute mankomunitate berrietan sartu nahi duten ala ez. Nolanahi ere, behin erabakia daudenean, beren jarduera-eremuak diren udalerriek mankomunitate horietan sartu ahalko dira edozein unetan.

Mankomunitate horiek sortuko dira zerbitzuak emateko orduan lurraldetasun, funtzio aniztasuna eta berdintasuneko irizpideetan oinarrituz. Hasiera batean, gaur egun jada mankomunitate dauden udal-eremueneko zerbitzu guztiak bilduko dituzte. Gainera, hasieran onartutako eskumen-eremua edozein unetan zabaltzeko ahal izango da.

Mankomunitate horien jarduera-eremuaren barnean Nafarroako Lurralde Estrategian dauden esparru bat edo gehiago sartuko dira. Hala, Erriberako Mankomunitatearen barnean NLEko 1. esparruko udalerriak sartuko dira; Erdialdekoan, 2. eta 5. esparruetako udalerriak; Lizarreriakoan, 3. eta 4. esparruetakoak; Zangoza-Piriniokoan, 6. eta 7. esparruetako udalerriak; Bidasoa-Sakanakoan, 8. eta 9. esparruetako

udalerriak; eta Iruñerrikoan, Nafarroako Lurralde Estrategiako 10. esparruko udalerriak.

Bestalde, elkarte tradizionalen kasuan, egun dauden hamaikatatik, soilik lauk eutsiko diote toki-erakunde izaerari (Nafarroako Errege Bardeen Komunitatea, Aezkoa ibarreko batzordea, Erronkariko batzordea eta Salazar ibarreko batzordea).

Udalerrri eta kontzejuen jarraipena

Udalerrri eta kontzejuen kopuruari dagokienez, kasik egungo egoeran pare geratzen dira. Nolanahi ere, proposamenak barnean hartzen du 1.000 biztanle baino gehiagoko kontzejuak (haien biztanle-kopurua beren udalerriko gainerako biztanleena baino handiagoa bada) bertan sartuko direla. Halaber, beren borondatezko desagertzearen alde egingo da eta nahitaz desagertuko dira hauteskundeetara hautagairik aurkezten ez bada, edota kontzejuak beren administrazio-betebeharrak betearazten ez badituzte, bai eta egun aurreikusitako kasuetan, non kontzejuak 16 biztanle baino gutxiago duen eta 3 familia-unitate baino gutxiago. Gainera, aurreproiektuak kontzeju berriak sortu ez ahal izatea proposatzen du, eta ez onartu ahal izatea beste eskumen batzuen eskuordetzea.

Bestalde, gara ditzaketen eskumenen gainean ere jarduten da, honako hauetan murrizten direnak: hilerriak kontserbatzera eta mantentze-lanetara, kontzejuen artxibora, herriko festak antolatzen, ondareari lotutakora eta landa-bideen mantentze-lan nahiz kontserbaziora. Azkenik, arlo ekonomikoko, aurrekontu- eta finantza-arloko aholkularitza beren udalerriko kontu-hartzaileak egin ahal izango du.

Udalerrien esparruan, beren borondatezko bat-egitea sustatzea eta ahalbidetzea proposatzen da, desagerrarazi hauteskundeetan hautagairik ez badago eta kudeaketako udalerrri arteko egituretan sartzeko apustua egin arrazionalizatzeko eta eraginkortasun nahiz berdintasun handiagoa lortzeko zerbitzuak emateko orduan. Beren eskumenei dagokienez, egungo eskumenei eutsiko diete, Toki Erregimeneko Oinarrien Legean araututakoak Toki Administrazioen Foru Legeak berariaz aginduta.

Toki-erakundearen egungo finantzaketa-eduaren berraztertzea

Esparza kontseilariak ere azaldu du Nafarroako toki-erakundearen kudeaketa-eredu berriak egungo finantzaketa-eredua berraztertzeko egoera dakarrela berekin, Foru Lege berriarekin egin nahi den toki-administrazioarekin koherentea izan dadin.

Proposamenak barnean hartzen du Nafarroako Zergetan Toki Ogasunen Parte-hartze Funtsetan berraztertzea, Toki Administrazioak emandako zerbitzu guztiak finantzatzeko iturri gisa. Funtsetan horren banaketa-irizpideek honako helburu hauek izango ditu: Foru Legean jasotako kudeaketako udalerrri arteko egituren sorrera eta funtzionamendua sustatzea; kudeaketako adierazleak betearaztea, erakunde mailegatzailaren arabera, ematen diren zerbitzuen arabera eta garatzen diren lurralde-esparruaren arabera bereiziak; eta erakundeek duten diru-bilketako gaitasuna eta emandako zerbitzuei eragiten dieten zerga-baliabideak izatea.

Alor horretan aurrera egiteko, lan-talde bat eratuko da, eta hura osatuko dute: Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiko ordezkariak, Nafarroako Udalerrri eta Kontzejuen Federazioko ordezkariak, Comptos Ganberako ordezkariak eta mankomunitate adierazgarrietako ordezkariak.

Toki-finantzaketaren sistema berria agindu eta arautzen duen Foru Legearen proposamena gehenez ere urtebeteko epean aurkeztu beharko da Nafarroako Toki Administrazioaren berrantolaketako Foru Legea indarrean sartzen denetik.

Aldi baterako, eta eskumenak murriztu direla eta, kontzejuetan Toki Ogasunen Funtsetik jasotzen dutenaren % 30 murriztuko zaie, eta kopuru hori beren udalerriak jasoko dute, orain arte kontzejuenak ziren eskumen jakin batzuk udalerriek bere gain hartzean.

Hurrengo pausoak

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Toki Administrazioaren berrantolaketako Foru Legearen aurreproiektuaren berri jaso ondoren, testua inplikaturik dauden departamentuei bidaliko zaie dagozkien txostenak egin ditzaten. Gainera, kontseilariak bihar bertan igorriko du Nafarroako Udalerrri eta Kontzejuen

Federazioaren proposamena. Toki Erregimeneko Foru Batzordearen txostena eta Gobernuak onartutako Lege Proiektua Nafarroako Parlamentura bidali aurreko pausoak izango dira, bertan izapidetu dezaten. Aldi berean, lan-taldea abian jarriko da toki-erakundeen finantzaketan aldaketarako proposamena zehazteko.